

EHUko Gustavo Fernandez matematikariak hiru dibulgazio-liburu gomendatu dizkigu: *Loroaren teorema* (Denis Guedj), *Simetría* (Marcus du Sautoy) eta *Matemáticas para divertirse* (Martin Gardner).

Matematikaz gozatzeko liburuak, hirurak, baina hiru ikuspuntu ezberdinetatik idatziak.



GUSTAVO FERNANDEZ
EHUko matematikaria

Matematika GOZAGARRIA

i

Loroaren teorema

Denis Guedj
EHU ZIO Bilduma
240 x 160 mm
ISBN: 84-8373-816-3
Jatorrizko izenburua:
Le Théorème du perroquet

Simetría. Un viaje por los patrones de la naturaleza

Marcus du Sautoy
Acantilado
210 x 130 mm
ISBN: 978-84-92649-17-4
Jatorrizko izenburua:
Symmetry

Matemáticas para divertirse

Martin Gardner
RBA Libros
190 x 130 mm
ISBN: 978-84-7901-092-8
Jatorrizko izenburua:
Entertaining Mathematical Puzzles

LOROAREN TOREMA


Loroaren teorema eleberrian (*Le Théorème du perroquet*), detektibe-ikerketa bat aitzakiatzat hartuta, matematikaren historiaren hainbat pasadizo kontatzen dizkigu Denis Guedj-ek. Liburu horren orrialdeetatik, Parisko liburu-denda baten inguruan biltzen diren protagonistez gain, Euklides, Fermat, Galois eta beste matematikari garrantzitsu asko igarotzen dira.

SIMETRIA

Marcus du Sautoy Oxfordeko Unibertsitateko katedradunak modu inbidiagarrian uztartzen ditu bere ikerlari- eta dibulgatzaile-lanak. Matematikako aldizkari hoberenetan artikulu asko argitaratzeaz gain, BBCren kolaboratzailea da azken urteotan; adibidez, matematikaren historiaren inguruko bideo-sorta baten egilea da (YouTube-n ikus daiteke). Arrakasta handiko liburu pare bat ere idatzi ditu matematikaren dibulgaziorako. Horietariko bat *Simetría* liburu dugu (*Symmetry*). Du Sautoyren ikerketa-arloa talde-teoria izenekoa da, eta taldeak dira, hain zuzen, simetria neurtzeko matematikak erabiltzen duen tresna. Liburu horretan, bere bizitzaren pasadizo batzuk aprobeztatuz, maisutasunez azaltzen digu Du Sautoyk nola agertzen diren taldeak simetriaren ikerketan eta nola baliatu ditzakegun objektuen simetria-mota guztiak identifikatzeko. Bereziki interesgarria da La Alhambra azulejoetan agertzen diren motibo geometrikoen simetriaren azterketa.

MATEMATICAS PARA DIVERTIRSE

Martin Gardner dibertimenduzko matematikaren erregea izan zen XX. mendean. Heziketaz fi-



losofoa, magiarenganako zaletasunak bultzatuta hurbildu zen joko matematikoetara. *Scientific American* aldizkarian “Mathematical Games and Recreations” zutabea idazteaz arduratu zen 25 urtez, eta izugarriko arrakasta bereganatu zuen. Zutabe horretako artikuluen bilduma eginda, 15 liburu argitaratu zituen. Hemen gomendatzen duguna horietariko bat da, *Matemáticas para divertirse* (*Entertaining Mathematical Puzzles*). Matematikarekin lotutako igarkizun-sorta bat proposatzen digu Gardnerrek bere liburuan. Igarkizun horietan matematikaren arlo gehienak jorratzen dira: aritmetika, geometria, probabilitatea eta topologia, besteak beste. ●